



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

LANA ETA JUSTIZIA

1. Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda	2
2. Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda	4
3. Abokatuen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak	5
4. Prokuradoreen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamendu-gastuak	6
5. Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako dirulaguntza-programa.....	7
6. Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko.....	8
7. Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendugastuetarako	9
8. Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2019ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik.....	10
9. Diru-laguntzak enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jardueraremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.....	12
10. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartza duten erakunde sindikalei 2019ko ekitaldirako diru-laguntzak ematea	14
11. Gizarte Ekonomian Ekitea	15
12. Enpresetarako Laguntza Teknikoa	17
13. Gizarte Ekonomiako Prestakuntza	19
14. Elkarte Egiturak babestea.....	21
15. Gizarte Ekonomiako enpresetan Bazkideak sartzea	23
16. Enpresen arteko Lankidetzeta	25
17. Gizarte Ekonomiako langileen benetako Partehartzea	26
18. Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE)	28
19. Gizarte ekonomiaren lehen mailako enpresak indartzeko.....	30



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen Elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12)
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa (EHAA, 2018-11-06)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da zaintza judizial eraginkorra (zeina Konstituzioak aipatzen baitu bere 119. artikuluan) bermatzea auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen dutenentzat; eta baita 1/1996 Legeak doako defentsarako eta ordezkaritzarako eskubidea zuzenean aitortzen dien beste norbanako eta erakunde onuradun batzuentzat ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoa (DLJ) jasotzeko eskubidea aitortzen duen jarduera hori, zehazki, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan (OJZ) hasten da. Ondoren, zerbitzu horiek Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeetara bidaltzen dituzte espedienteak. Batzorde horien bilerak, salbuespenak salbu, bi asterik behin izaten dira.

1412 Programaren Memorian ezarritakoaren arabera DLJko hiru batzordeek 66 bilera egin behar zituzten guztira. 2019ko datuetan ageri denez, 60 bilera egin ziren doako laguntza juridikoa aitortzeko. Kide anitzeko organo horietara joateagatik kalte-ordain gisa 9.440 €-ko gastua egin da.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen ezarpena erraztu da eta jarraipena egin da gai horretan indarrean dagoen araudia zenbateraino betetzen den ikusteko; ondorioz, EAEko abokatuen elkargo ofizialei ordaindu egin zaie beren abokatuek ofiziozko txandan zein zaintza-txandan egindako jarduketa guztiengatik.

Elkargo horiek hiru hilerik behin emandako datuen arabera, 2019an (hain zuzen ere 2018ko 4. hiruhilekoan eta 2019ko lehen 3 hiruhilekoetan) ofiziozko txandan 27.610 jarduketa egiaztatu eta ordaindu ziren: 5.711 Araban, 14.139 Bizkaian eta 7.760 Gipuzkoan. Halaber, 14110 Programaren Memoriako kalkuluen arabera DLJko 6.000 bat espediente bideratuko ziren Araban, 8.500 bat espediente izango ziren Gipuzkoan, eta Bizkaian 16.000 bat izango ziren. Kalkuluen arabera guztira DLJko 30.500 espediente



inguru bideratzea espero zen, eta 2019ko likidazioen osteko datuen arabera %5eko igoera txiki bat egon da.

1412 Programaren Memorian esaten zen ebazpenen % 80k aitortuko zutela eskubidea, baina azken datuen arabera, zenbateko hori % 86ra igo da, alegia, guztira emandako 32.168 ebazpenetatik 27.508 kasutan eman da eskubidea aitortzearen aldeko ebazpena (hor sartuta daude genero- eta etxeke indarkeriagatik zuzenean ematen diren ebazpen aldekoak edo positiboak).

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko honen inpaktu sozialaren ebaluazioa konstituzio-agindu bat formalki betetzea da, abokatuaren doako defentsa eskaini baitzaie, beren prozedura judizialerako, legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei,

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Jarduketa profesionalen kopurua	30.500	32.168



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen elkargoak. Doako laguntza juridikoa: Ofiziozko txanda

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12)
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa (EHAA, 2018-11-06)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea da zaintza judizial eraginkorra (zeina Konstituzioak aipatzen baitu bere 119. artikuluan) bermatzea auzitan jarduteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen dutenentzat; eta baita 1/1996 Legeak doako defentsarako eta ordezkaritzarako eskubidea zuzenean aitortzen dien beste norbanako eta erakunde onuradun batzuentzat ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programa honen bidez diruz lagundutako politika publiko honen inpaktu sozialaren ebaluazioa konstituzio-agindu bat formalki betetzea da, abokatuaren doako defentsa eskaini baitzaie, beren prozedura judizialerako, legez ezarritako doako laguntza juridikorako eskubidea eskatu eta lortu duten pertsona guztiei.

Prokuradoretzaren elkargoek emandako hiruhileko datuen arabera, 2019an (2018ko 4. hiruhilekoan eta 2019ko lehen 3etan), ofiziozko txandan 15.906 jarduera egiaztatu eta ordaindu dira (3.206 Araban, 8.481 Bizkaian eta 4.219 Gipuzkoan).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
(ezartzeke)		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Abokatuen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa: Funtzionamendu-gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12)
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa (EHAA, 2018-11-06)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargoaren kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionali ematen die zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko erantzukizuna. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek abokatuen elkargoek Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboari eusteko egiten dituzten gastuak diruz lagunduko dituzte, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea bermatzeko eta ziurtatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatuz (38. art.), eta Abokatuen elkargoei Orientazio Juridikoko Zerbitzuen funtzionamendu operatiboak – Aseguru-kostuak barne –eragindako urteko kostuak egiaztatu ondoren, 2019rako aurrekontuetan horretarako ezarritako zenbatekoak ordaindu zaizkie.

Lortutako emaitzak finantzatzeko derrigortasuna ezartzen duten arauetan aurreikusitakoak dira. Finantzazio horri esker, haien bideragarritasuna bermatzen da, oso erabilgarria den eta gizartean eragin handia duen zerbitzu publiko horren funtzionamendu operatiboa ziurtatu behar baita. Abokatuen elkargoei egindako kontraprestazio bat da, doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamendu operatiboak sortzen dien kostua ordaintzeko, bai eta herritarrei prozesuaren aurretik aholkularitza eta orientazioa emateaz eta eskatutako uzien behin-behineko kalifikazioaz arduratzen diren unitateena ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea _____ Aurreikuspena _____ Emaitza _____
(ezartzeke)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Prokuradoreen Elkargoa. Doako laguntza juridikoa. Funtzionamendu-gastuak

2.- Araua

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako laguntza juridikoa arautzen duena (BOE, 1996-01-12)
153/2018 Dekretua, urriaren 30ekoa, Doako laguntza juridikoari buruzkoa (EHAA, 2018-11-06)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

1/1996 Legeak doako abokatu-laguntzako, defentsako eta ordezkartzako zerbitzuen elkargoaren kudeaketa aurreikusten du, eta elkargo profesionali ematen die zerbitzu horiek arautzeko eta antolatzeko erantzukizuna. Esparru arautzaile horretan, administrazio publiko eskudunek abokatuen elkargoek Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu operatiboari eusteko egiten dituzten gastuak diruz lagunduko dituzte, betiere herritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea bermatzeko eta ziurtatzeko helburuarekin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Doako Laguntza Juridikoaren Legea aplikatzea eta betetzea erraztu da. Lege horren helburua da herritar babesgabeiei benetako babes judiziala berdintasun-baldintzetan eskuratzea eragozten dieten oztopoak kentzea. Arauek eurek zer emaitza lortu behar diren derrigorrez ezartzen dute, eta, hain zuzen ere, aurreikuistako horiexek dira lortutakoak, eta horrexek beramatzen du gizartean duen onura eta eragina, zeren eta prokuradoreen elkargoek egiten zaien kontraprestazio bat baita doako laguntza juridikoaren onuradunentzat ofiziozko txandaren funtzionamenduagatik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
(ezartzeke)		



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako dirulaguntza-programa

2.- Araua

2019ko maiatzaren 3ko Agindua, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinen bidez egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan zigortuak eta presoak gizarteratzeko eta lan-munduan txertatzeko proiektuetarako dirulaguntzen deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

EHAA, 97. zk., 2019ko maiatzaren 24koa

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902482e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren xedea da irabazi-asmorik gabeko erakundeek espetxeetan edo baldintzapeko askatasunean dauden zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak garatzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan askatasunaz gabetzeko zigorraren betearazpena etenda duten zigortuak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, zigortuak eta presoak gizarteratzearen alde lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko 34 erakundeek 47 inklusio-proiektu aurkeztu dituzte. Horietatik, 44 proiektuk jaso zuten dirulaguntza, eta deialdiaren zuzkidura agortu egin zen. Hona hemen diruz lagundutako proiektuen zehaztasunak modalitateka, modalitate bakoitzeko dirulaguntzen zenbateko metatuekin:

Modalitateak	Diruz lagundutako proiektuen kopurua	Emandako dirulaguntzen zenbatekoa
Irteerak eta auzolandegiak	6	38.156,00 €
Egoitza- eta ostatu-baliabideak	4	52.861,00 €
Mendekotasuna gainditzeko baliaabideak drogazaleentzat	6	79.897,00 €
Prestakuntza- eta gaikuntza-zentroak	11	134.274,00 €
Enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroak	16	194.812,00 €
Guztira	44	500.000 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak	41	44



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak ematea Karrera Judizialerako eta Fiskalerako, eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegorako oposizioak prestatzeko

2.- Araua

Agindua, 2018ko irailaren 6koa, Lan eta Justizia sailburuarena, Karrera Judizialera, Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora iristeko prestaketa-laguntzetarako 2019ko deialdia egiteko eta laguntza horiek arautzeko dena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

-Deialdia: Agindua, 2018ko irailaren 6koa EHAA 189 zbk., 2018ko urriaren 1ekoa

- Ebazpena: 2019ko urtarrilaren 18ko Ebazpena, EHAA 23 zbk., 2019ko otsailaren 1ekoa

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza lerroa, zuzenbideko lizentziadunak motibatzea helburu duena beren lanbide asmoak Karrera Judizial eta Fiskalera eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegora bidera ditzaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Karrera Judizial eta Fiskalaren eta Justizia Administrazioaren Letraduen Kidegoaren oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko programa 1411-Justizia Administrazioa programan jasota dago, 5. helburuan, lanbide judizialen egonkortasuna sustatzeari buruzkoan, laguntza horiek deitzeko eta emateko 1. eta 2. ekintzetan adierazten den bezala.

Deialdi hori egin ondoren, xede horretarako aurreikusitako 35 beketatik 32 eman dira.

Baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina handiak izan dira, bai eskatzaileen kopuruagatik, bai kidego judizial horietan sarbidea izan duten onuradunen kopuruagatik, azkenean Euskal Autonomia Erkidegokoa justizia aparatuan integratuko baitira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatzaile kopurua	Zehaztugabea	40
Oposizioa gainditzen duten onuradunak	Zehaztugabea	6



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Funtzionamendurako diru-laguntzak udalentsat Bake Epaitegien funtzionamendu-gastuetarako

2.- Araua

-411/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Bake Justiziari buruzkoa.

-2019ko irailaren 10eko Agindua, Lan eta Justizia sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei bake-epaitegien 2019ko funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004359>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Botere Judizialaren Lege Organikoak udalerraren eremuan txertatutako organo gisa eratzten ditu Bake Epaitegiak, eta horregatik ez zaio uko egin udalen lankidetzari organo horien baliabide materialak hornitzeari dagokionean.

Horiek horrela, abenduaren 28ko 38/1988 Legean, Mugape eta Planta Judizialari buruzkoan, 50. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenei jarraituz, diru-laguntza programa bat ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan udalek gai honetan dituzten premiei sostengu ekonomikoa emateko.

Horregatik, 1990 urteaz geroztik Dekretu eta Agindu multzo bat eman da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako laguntzak arautu eta haietarako deialdiak egiteko, Bake Epaitegietak funtzionamendu-gastuei aurre egiteko asmoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Bake Epaitegietak funtzionamendu-gastuei aurre egiteko Udalentsako diru-laguntza programa Justizia Administrazioaren 1411 programan dago jasota, bake justiziari buruzko 4. helburuan, betiere gaian eskumena duten erakundeekin koordinatuta, laguntza horiek emateko 2. ekintzan zehazten den bezala. Deialdi hori eginda, helburu horretarako aurrekontuan sartutako zenbatekoaren (500.000 €) % 91,86 gauzatu da (459.325 €)

Lortutako emaitzak deialdian aurreikusitako berak dira; baliagarritasuna eta gizartean izan duten eragina garrantzitsuak izan dira, Bake Epaitegia duten 236 udalei eman baitzaizkie funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru-lagundutako Udal kopurua	236	% 100
Aurrekontu-exekuzioaren zenbatekoa eta ehunekoa	% 100	% 100



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2019ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko martxoaren 15ekoa, Lan eta Justiziako sailburuarena. Honen bidez, hasiera ematen zaio Hauteskunde Sindikalen Batzordeko, lurralde batzordeetako eta Ikuskaritzako kide diren sindikatuentzako 2019 urterako diru-laguntzak emateko prozedurari, hala ezarrita baitago azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/04/1901639e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/08/1903733e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen Batzordean eta Lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Diru-laguntza hauetarako kreditu osoa 520.000,00 € da eta Lurralde-batzordeetako eta Hauteskunde Sindikalen Batzordeko kide diren erakunde sindikalen artean banatu da.

Diru-laguntza horien bitartez lau sindikatuen jarduera ordaindu da 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko esleituta dituzten eginkizunen garapenari dagokionez, bai eta Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean izandako parte hartzea ere.

2019. urtean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak hauteskunde-prozesuak jarraitzeko lanak egin dituzte, langileen eskubideak bermatze aldera. Aipatutako ekitaldian, EAEn 1.800 hauteskunde sindikal baino gehiago egin dira eta 600 bisita baino gehiago egin dira hauteskunde sindikalak egiten ari ziren Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietara.

Bestalde, Hauteskunde Sindikalen Batzordeak urte hasieran egin zuen bere ohiko bilera. Bilera horretan egon ziren batzordea osatzen duten lau sindikatuetakoa bina ordezkari. Gainera, irailean beste bilera bat egin zen, Bizkaiko Lurralde Historikoko hauteskunde sindikaletako arbitroen izendapenen egoera aztertzeko. Horrez gain, Lurralde-batzordeek ohiko bilerak egin dituzte hamabostero; hau da, 22 bilera,



gutxienez, lurralde historiko bakoitzean. Eta beharrezkoa izan denetan ere, aparteko bilerak egin dira. Bilera horietara, batzorde bakoitza osatzen duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari joaten dira.

Aurrekontu-programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera eta hauteskunde-prozesuak jarraitzeko 1.200 jarduera egitea aurreikusita zegoen; horrenbestez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera sendotzeko helburua bete dela adieraz dezakegu.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean agerpen aktiboa izateak zein hauteskunde-prozesuak kontrolatu eta zaintzeko zereginetan parte hartzeak prozesu horiek behar bezala egiteko bermea ez ezik, lortutako emaitzak ere sendotzen dituzte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten

2.- Araua

191/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak ematekoa, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

AGINDUA, Lan eta Justiziako sailburuarena, 2019ko ekainaren 19koa, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan aurreikusitako deialdia 2019rako gauzatzen duena. Dekretu horrek, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei diru-laguntzak emateko aukera arautzen du, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

3.-Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2003/09/0304890a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903211e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzeko dira, horien bitartez beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Programaren zenbatekoa 710.000 euro da; 497.000 euro ordainketa-kreditu gisa 2019rako eta 213.000 euro konpromiso-kreditu gisa 2020ko ekitaldirako. Zenbateko horiek banatu dira eskaera egin duten erakunde sindikal eta enpresarien elkarteen artean.

Diru-laguntzak emanez enpresarien elkarteek eta erakunde sindikalek beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen trebakuntza hobetzeko aurkeztutako prestakuntza-planak ordaindu dira. Enpresarien elkarteen eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezkeen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Espedienteak izapidetzea	10	9
Ikastaroak proposatutako helburuetara egokitzen direla kontrolatzea	850	989
Irakasleen egokitasuna eta parte-hartzaileen bertaratzeak gainbegiratzea	24.600	24.914

Fitxa hau prestatzeko unean ez dago lortutako emaitzak zehazterik, diruz lagundutako prestakuntza-planak deialdiaren osteko ekitaldiaren martxoaren 30a arte gara baitaitezke; hala, erakunde eskatzaileek bi hilabeteko epea dute egun horretatik hasita amaierako justifikazio-memoria aurkezteko. Nolanahi ere, deialdian aurten parte hartu duten 9 erakundeek aurkeztutako eskaeretan 989 prestakuntza-ekintza proposatu dituzte guztira, eta gutxi gorabehera 24.914 lagunek jaso dute prestakuntza 2019ko ekitaldiko deialdiaren barruko planen bitartez.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2019ko ekitaldirako diru-laguntzak ematea

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko uztailaren 11koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalentzako diru-laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904066e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Kredituaren zenbatekoa hauexek dira: 1.100.000,00 € 2019rako ordaintza-kreditu gisa eta 220.000,00 € 2020rako konpromiso-kreditu gisa, eta erakunde sindikalen artean banatu dira ordezkariaren arabera.

Diru-laguntzak emanez sindikatuen hainbat jardura ordaindu dira; horietatik, besteak beste, eta jardura sindikalaren berezko gastuez gain, esparru soziolaboraleko prestakuntza-jarduerak nabarmendu beharrekoak dira, gehienbat erakundeetako kideei eskainiak.

Diru Laguntzen Programan diru-laguntzen 20 espediente izapidetzea aurreikusita zegoen. Azkenik, diru-laguntzak 18 erakunde sindikalei eman zaizkie ordezkariaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 16.419 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 17.150tik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagunduko diren erakunde kopurua	20	18



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomian Ekitea

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 11koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, honen bidez iragarri eta arautzen dira Gizarte Ekonomian ekiteko eta Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikatua bultzatzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA 2019ko ekainaren 11koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, honen bidez iragarri eta arautzen dira Gizarte Ekonomian ekiteko eta Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikatua bultzatzeko laguntzak. (2019ko ekainaren 19ko 115 zk. EHA)

EBAZPENA 2020ko maiatzaren 7koa, Gizarte Ekonomiako Zuzendariarena, honen bidez argitaratzen da 2019ko ekainaren 11ko Aginduan aurreikusitako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda. Agindu horren bidez Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko eta Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikatua bultzatzeko laguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 12ko 88 zk. EHA)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programaren xedea honako helburu hauekin eman diren laguntzak arautzea izan da:

- Gizarte Ekonomiako enpresak eratzea, dauden enpresak Gizarte Ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne.
- Gizarte Ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotutako sustapen ekintzak egitea, ondorengo jarraipena eta enpresa kudeaketarako doako aholkularitza barne.
- Krisiaren ondorio nabarmenak agertzen dituzten sozietate anonimo edo mugatuaren ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterketa egitea.
- Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikaturako beharrezkoak diren jarduerak egitea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizarte

2019an lortutako kopuruak:

- Guztira 120 eskaera aurkeztu dira programa horretan sartzeko, eta eskaera horietatik 113 onartu dira.
- Enpresa berrien sorkuntzaren barruan, 97 enpresa proiektu egiteko laguntzak eman dira; horri lotuta, 319 enplegu berri sortu dira eta, enplegu horietatik, 121 emakumeek bete dituzte. 6 eskaera ukatu egin dira, Aginduan araututa dauden hainbat arrazoiren ondorioz.
- Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko 4 entitate sustatzailek garatutako sustapen jarduerak finantzatu dira.
- Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokionez, sustapeneko 3 nodo entitateren lanari lagundu zaio eskualdeko eremuan.



5. 8 bideragarritasun azterlan egiteko dirulaguntzak eman dira, egoera larrian dauden merkataritza sozietateak Gizarte Ekonomiako enpresa bihurtzeko.

Lortutako magnitudeei eta 2019ko aurrekontuei atxikitako memorian jasotako helburu eta adierazleak egokitzeari dagokionez, aipatu behar da gastuaren % 100 exekutatu dela eta azken onuradunak memorian aurreikusitako berberak izan direla ia-ia.

Aurrekontu betearazpena:

	Aurrekontua	Egindakoa	%
Kooperatibak eta lan sozietateak sortzea	1.754.735	1.469.278	%84
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileak			
Enpresetan egindako bideragarritasun azterketak	50.000	24.000	%48
Lagundutako lurralde sustapeneko planak	210.000	210.000	%100
GUZTIRA	2.014.725	1.452.650	%85

Erabilgarritasun eta eragin soziala: Nabaria da dirulaguntza programa hau oso lagungarria dela Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko, bai kooperatiba gisa, bai lan sozietate gisa. Horren erakusgarri, sozietate berrien sorkuntzari lotutako parametroak egonkorrak izan dira azken urteetan eta enpresa jarduera berriak eta lanpostu berriak sortu dira. Dirulaguntzen Agindu honen barruko gainerako laguntza ildoak, enpresa berriak eratzeak baino garrantzi txikiagoa izanik ere, eraginkortasunari eta efizientziari eutsi diote.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN	EMAITZA
Sortutako kooperatiba eta lan sozietate kopurua	125	97
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua eta kalitatea	5	4
Enpresetan egindako bideragarritasun azterketen zenbatekoa	5	8
Lagundutako lurralde sustapeneko planen zenbatekoa	3	3
Egindako biler kopurua	8	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresetarako Laguntza Teknikoa

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 4koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetan Laguntza Teknikoa emateko laguntzetarako deialdia egiten duena eta dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 11ko 148 zkdu EHA

Onuradunak: EBAZPENA 2020ko maiatzaren 7koa, Gizarte Ekonomiako Zuzendaria, honen bidez argitaratzen da 2019ko ekainaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez Gizarte Ekonomiako enpresetan Laguntza Teknikoa emateko dirulaguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 12ko 88 zkdu EHA)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza programa horren bidez, Gizarte Ekonomiako enpresetan kudeaketa tresnen ezarpena sustatu nahi da, enpresak haien administrazioa, zuzendaritza eta, azken finean, lehiatzeko ahalmena hobetuko duten tresnez hornitzeko. Bestalde, Gizarte Ekonomiatik eta Gizarte Ekonomiarako bultzatutako elkarrekiko bermeko sozietateen bitartez Gizarte Ekonomiako erakundeen enpresa finantzaketa errazteko laguntza ildoak jasotzen da. Horretarako, diruz laguntzeko moduko 3 jarduera mota hartzen dira kontuan:

- a) Urteko Kudeaketa Plana landu eta ezartzea.
- b) Gizarte Ekonomiako erakunde adierazgarriek bermeak emateko beharrezkoa den alde aurreko ekonomia eta finantza azterlana egitea.
- c) Plan Estrategikoa, Pertsonen asebetetzea neurtzeko programak, Kostua kalkulatzeko eta kontrolatzeko metodoak egin eta ezartzea, edo agente taula osoa ezartzea, Euskadin ordezkariak duten erakundeen aldetik euren elkartuei eman beharreko zerbitzuen antolakuntzatik eratorriak, legeak eta/edo estatutuak betetzeko.
- d) Aholkularitza espezifikoa merkataritza kudeaketari buruz, 2018an "Ekitea" programarekin bat egiten duten enpresentzat.
- e) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea. Gomendio zehatzak jasoko ditu enpresaren lehiakortasuna hobetzeko *eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.*
- f) Eskualdez Eskualde jardutea gizarte-ekonomiaren sustapenean.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an lortutako kopuruak: Dirulaguntzak jasotzeko 38 eskaera aurkeztu dira, eta, zenbait arrazoi direla eta, 9 ezetsi egin dira. Laguntzak honela banatu dira:

- Merkataritza plangintzan 5 aholkularitzak jaso dute Sailaren dirulaguntza
- Plan Estrategikoak: 24
- Pertsonen asebetetzea neurtzeko programak: 4
- Suspertzeko planak: 8
- Urteko Kudeaketa Plana: 7
- Berme finantzarioen gaineko bideragarritasun azterketak: 1 onuradun (lan sozietate batzuk biltzen dituen elkarte).

Aurrekontu-betearazpena

	Aurrekontua	Egindakoa	%
Kudeaketa tresnak	200.000	189.570	%95
Bermeak emateko bideragarritasun azterketa ekonomiko-finantzarioak	50.000	10.000	%20
TOTAL	250.000	199.570	%80

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIK.	EMAITZA
Diruz lagundutako kudeaketa tresnen zenbatekoa	65	48
Egindako azterketen zenbatekoa (*)	30	11
Kudeatzerako laguntza	3	13



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomiako Prestakuntza
--

2.- Araua

AGINDUA 2019ko maiatzaren 28koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako arloko Prestakuntza arloko laguntzetarako deialdia egiten duena eta dirulaguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 7ko 107 zkduen EHAA

Onuradunak: EBAZPENA 2020ko maiatzaren 13koa Gizarte Ekonomiako Zuzendariarena. Honen bidez, argitaratzen da 2019ko maiatzaren 28ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez Gizarte Ekonomiako Prestakuntzarako dirulaguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 15eko 67 zkduen EHAA)
--

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programan horren bidez, honako jarduera hauek egiten lagundu nahi da:

* Prestakuntza arloan:

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Ekonomia arloko prestakuntza espezifiko eta bereizira bideratutako ekintzak, unibertsitate eta/edo sozietate eremuan kooperatibismoari edo lan sozietateei buruzko ezagutzari hasiera emateko, edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko edo hobetzeko helburua dutenak. - Gizarte Ekonomiako enpresa diseinatzeko eta abian jartzeko ekintzak, unibertsitate prestakuntzaren parte gisa, eta haren tutoretzapean. |
|--|

* Gizarte Ekonomiaren hedapen arloan:

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Kooperatibei eta lan sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak argitaratzea. - Aldian behingo jardunaldiak egitea. - Ekitaldi bereziak egitea Gizarte Ekonomiako enpresa eta erakundeen ikusgaitasuna bultzatzeko, hala nola oroipen edota omenaldi egunak, sari berezien banaketak eta antzeko ekitaldiak. - Zabalkunde jarduerak hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia. Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak emango du horien gaineko oniritzia, beti ere praktikara eramanda jarduerok izan dezaketen benetako eraginaren kuantifikazioa eta zenbatespena oinarri hartuta. |
|---|

* Gizarte Ekonomiari buruz ikerketak:

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Ekonomiari buruz ikerketak - Gizarte Ekonomiako gaiak ardatz izango dituzten unitate didaktikoak sortzea, ikastetxeetan zabalkunde egin dadin. Horrez gain, material didaktikoa sortuko da, Gizarte Ekonomiako arloa EAEko eskola curriculumean txerta dadin. |
|--|



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an lortutako kopuruak:

17 dirulaguntza eman zaizkie hainbat erakunde eskatzaileri. Dirulaguntza jaso duten proiektuek honako kopuru hauek izan dituzte aurkeztutako jarduerak eta jardunak egitean:

- Gizarte Ekonomiako prestakuntza espezifikoa eta berezia emateko ekintzak: prestakuntza hori 1.000 pertsonak baino gehiagok jaso dezakete.
- Kooperatibei eta lan sozietateei buruzko aldian behingo argitalpenak argitaratzea: 18 argitalpenek jaso dute dirulaguntza.
- Aldian behingo jardunaldiak egitea: 21 jardunaldik jaso dute dirulaguntza.
- Gizarte Ekonomia ikusarazteko ekitaldi bereziak: 2
- Zabalkunde jarduerak, hainbat formatu eta euskarritan garatzekoak (grafikoa, irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia): 3
- Gizarte Ekonomia gaineko unitate didaktikoak, ikastetxeetan zabaltzeko: 1
- Ikerketak: 6
- Euskal Gizarte Ekonomiako ereduak: 1

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 582.800 euroko zenbatekotik, guztira 608.233 euroko laguntzak (%104,3) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Trebatutako ikasle kopurua	1.000	1.000
Egindako jardunaldi kopurua	20	24
Diruz lagundutako argitalpen kopurua	18	9
Egindako ekitaldi berezien kopurua	2	2
Diruz lagundutako zenbat zabalpen-ekitaldi egin diren	3	3
Egindako ikerketen kopurua	6	6
Diruz lagundutako zenbat unitate didaktiko egin diren	1	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarte Egiturak babestea

2.- Araua

AGINDUA 2019ko uztailaren 2koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, honen bidez iragarri eta arautzen dira Gizarte Ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte Egiturak finkatzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko uztailaren 17ko 135 zkun EHA

Onuradunak: EBAZPENA 2019ko apirilaren 9koa, Gizarte Ekonomiako Zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da 2018ko uztailaren 18ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez Gizarte Ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte Egiturak sendotzeko laguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 15eko 91 zkun EHA)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Gizarte Ekonomiako erakundeen elkarte Egiturak finkatzea:

- a) Lan sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
- b) Lan elkartukoez bestelako kooperatibak eta elkarte konfederalak.
- c) Ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu zentru berezien elkarteak.
- d) Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an lortutako kopuruak:

Gizarte Ekonomiari lotutako Euskadiko 9 elkarte Egitura mantentzen lagundu ahal izan da. Zehazki, honako hauek izan dira:

- Lan elkartuko kooperatiben federazio 1.
- Lan sozietateen talde 1
- Lan elkartukoez bestelako kooperatiben 2.
- Ekonomia solidarioko elkarte 1.
- Enplegu zentru berezien 1 elkarte.
- Langile autonomoei lotutako 3 elkarte.



Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 680.000 euroko zenbatekotik, guztira 692.348 euroko laguntzak (%102) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPENA	EMAITZA
Diruz lagundutako elkarte eta erakunde kopurua	14	9



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomiako enpresetan Bazkideak sartzea

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 18koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetara bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituen eta haietarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 25eko 119 zk. d. un EHA

Onuradunak: Oraindik ez dago EHAA-n argitaratuta

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako hau da: bazkide langileak edo lan bazkideak Gizarte Ekonomiako enpresetan sartzeko laguntzea, epe jakin batean (2018ko uztailaren 7tik 2019ko ekainaren 25era bitarte).

Lau motako hartzaileak daude:

- Kooperatiba edo lan sozietate batean sartzeko diren langabeak, dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoan gutxienez hiru hilabeteko antzintasunaz inskribatuta egon behar dute.
- Bazkideak ez diren langileak, besteren konturako lan kontratuarekin.
- Desgaituak.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiatzearen eta ustiatze mistoen titularrak, beti ere nekazaritza kooperatibetan bazkide gisa sartu badira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartearen

Kapitalerako ekarpenen dirulaguntza partzialaren bidez, Gizarte Ekonomiako enpresetan 248 bazkide sartzeko bultzatu da, honako banaketa honekin:

- Langabe 2 sartu dira.
- Besteren konturako 157 langilek dirulaguntza jaso dute Gizarte Ekonomiako enpresa bateko bazkide langile edo lan bazkide bihurtu direnean.
- Desgaitasunen bat zuten 47 pertsonak laguntza publikoa jaso dute Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkide langile gisa sartu direlako.
- Nekazaritza kooperatibetan sartu diren eta dirulaguntza jaso duten bazkideak 32 izan dira.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 300.000 euroko zenbatekotik, guztira 340.549 euroko laguntzak (%113) onartu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Pertsona langabeak	10	2
Desgaitasunen bat duten pertsonak	30	47
Nekazaritza ustiatzeen titularrak	30	32
Besteren kontrako langileak	100	156



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen arteko Lankidetzak

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 11koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresen arteko Lankidetzarako laguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 19ko 115 zkduen EHAA

Onuradunak: EBAZPENA 2019ko apirilaren 8koa Gizarte Ekonomiako Zuzendariarena, honen bidez argitaratzen da 2018ko uztailaren 26ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez Gizarte Ekonomiako enpresen arteko Lankidetzarako dirulaguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 15eko 91 zkduen EHAA).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Gizarte Ekonomiako enpresen adierazgarri diren elkarteek beren bazkideentzat Lankidetzak proiektu lantzea eta ezartzea.
- b) Akordioak landu eta formalizatzea eta enpresen arteko Lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzea, Gizarte Ekonomiako enpresek bat egiteko beharrezkoak direnak barne.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresen arteko Lankidetzarako proiektuak eta haien ezarpena: 12
- Gizarte Ekonomiako enpresen bat egiteak: 1
- Enpresen arteko Lankidetzarako bideragarritasun azterlanak. 1

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 166.667 euroko zenbatekotik, guztira 119.567 euroko laguntzak (%72) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Elkarterako eta enpresetarako diruz lagundutako kopurua	12	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Ekonomiako langileen benetako Partehartzea

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 4koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, Gizarte Ekonomiako enpresetan langileen benetako Partehartzea bultzatzeko laguntzen deialdia egiten duena eta laguntza horiek arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 11ko 109 zkdu EHA

Onuradunak: EBAZPENA 2019ko apirilaren 1ekoa, Gizarte Ekonomiako Zuzendariarena. Honen bide, argitara ematen da 2018ko urriaren 23ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez, Gizarte Ekonomiako enpresetan langileen benetako Partehartzea bultzatzeko dirulaguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 15eko 88 zkdu EHA).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- Gizarte ekonomiaren enpresetan:
 - a) Metodo eta tresna egokiak garatu eta ezartzea, langileen parte-hartzea erraztu eta hobetzeko, gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan.
 - b) Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea.
- Gizarte ekonomiatik kanpoko enpresetan:
 - a) Langileek parte hartzeko plan bat prestatu eta ezartzea. Erakunde aholkulariaren laguntzarekin eta aholkuarekin egingo da plan hori.
 - b) Inoren konturako langileek akzioak edo partizipazioak harpidetzea.
 - c) Enpresari bere langileek akzioak edo partizipazioak harpidetzearen ondorioz zuzenean sortzen zaizkion gastuak.
 - d) Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea.
 - e) Enpresetako langileen parte-hartzea erraztu eta hobetzen duten arau-garapenari buruzko ikerketak egitea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Gizarte ekonomiaren enpresetan:
 - a) Metodo eta tresna egokiak: 8
 - b) Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea: 1



- Gizarte ekonomiatik kanpoko enpresetan:
 - a) Langileek parte hartzeko planak: 1
 - b) Inoren konturako langileek akzioak edo partizipazioak harpidetzea: 1
 - c) Langileen parte-hartzea ezartzeko jardunbide egokiak zabaltzea: 1
 - d) Arau-garapenari buruzko ikerketak: 1.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 350.000 euroko zenbatekotik, guztira 146.492 euroko laguntzak (%42) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Ezarritako plan-kopurua	20	9
Egindako azterketa-kopurua	2	1
Diruz lagundutako jardueren eta ekitaldien kopurua	3	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE)

2.- Araua

AGINDUA 2019ko ekainaren 4koa, Lan eta Justiziako Sailburuarena, honen bidez arautzen dira enpresen arteko Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko laguntzak eta laguntza jasotzeko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko ekainaren 11ko 225 zk. d. EHA

Onuradunak: EBAZPENA 2019ko apirilaren 9koa, Gizarte Ekonomiako Zuzendaria. Honen bidez argitaratzen da 2018ko urriaren 3ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda. Agindu horren bidez enpresen artean Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko dirulaguntzak iragartzen eta arautzen dira. (2020ko maiatzaren 15eko 91 zk. d. EHA)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- a) Enpresen Gizarte Erantzukizunak euskal gizartean bizi duen egoera ezagutzeko azterlanak, eta Enpresen Gizarte Erantzukizuna bultzatzeko azterlanak.
- b) Enpresen Gizarte Erantzukizuna enpresetan ezartzea, jasangarritasun-memoriak eginez.
- c) Enpresen Gizarte Erantzukizunaren kultura eremu publikoetan, enpresarialetan eta korporatiboetan zabaltzeko jarduketak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Azterlanak: 2
- Enpresetan EGEa ezartzea: 7
- EGEren kultura zabaltzea, horretarako jardunbide egokiak identifikatuz: 5

Aurrekontu-betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 184.000 euroko zenbatekotik, guztira 95.561 euroko laguntzak (%52) onartu dira.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Egindako azterlanak	3	2
EGE sustatzeko ekintzak	20	7
Erakundearteko Euskal Foroaren bilerak.	2	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte ekonomiaren lehen mailako enpresak indartzeko

2.- Araua

AGINDUA, 2019ko azaroaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eta Lan eta Justiziako sailburuak batera emandakoa, zeinaren bidez deialdia egiten baitute eta arautzen baitituzte dimentsionatzeko laguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Argitalpena: 2019ko azaroaren 26ko 225 zk. EHA

Onuradunak: Oraindik ez dago EHAA-n argitaratuta

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

- Bat egiteko proiektuak landu eta egitea, aldeztatik bestelako dirulaguntzarik izan ez badute.
- Sozietate xurgatutik etorritako bazkideek sozietate bereganatzailearen kapital sozialari egindako ekarpenen harpidetza.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Honako jarduera hauek egitea erraztu da:

- Bat egiteko proiektuak landu eta egitea
- Sozietate xurgatutik etorritako bazkideek egindako ekarpenen harpidetza: 173

Aurrekontu-betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 600.000 euroko zenbatekotik, guztira 519.000 euroko laguntzak (%83,8) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

ADIERAZLEA	AURREIKUSPEN.	EMAITZA
Bat egiteko proiektuak	2	0
Etorritako bazkideek egindako ekarpen harpidetza	200	173